

## OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2009ko ekainaren lauan gaueko bederatzia eta hogeidirenean, bildu dira, Ohiko Udalbatzarra ospatzeko, ondoko Korporatiboak:

IÑAKI OIARTZABAL ZINKUNEGI, Alkate-Lehendakaria.

BITTOR ASTIGARRAGA ZUGASTI, Zinegotzia.

JOSEBA IÑAKI LABAKA BERISTAIN, Zinegotzia.

LUIS BERRONDO LANCETA, Zinegotzia.

LUIS ARZALLUS AMENABAR, Zinegotzia.

JOSE LUIS ALBISUA LASA, Zinegotzia.

JOSUNE ARRUTI EIZAGIRRE, Zinegotzia ez da bilkura honetan egongo arrazoi justifikatuengatik.

Idazkari lanetan, Udaleko Bitarteko Idazkari kontuhartzailea den MARIA ETXEBERRIA URRETABIZKAIA.

Alkateak hasiera eman dio udalbatzarrari ondoko gai zerrendaren arabera:

### **LEHENENGO PUNTUA:**

#### **2009 EKITALDIKO AURREKONTUAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONARPENA.**

Alkateak komentatzen du, 2009ko maiatzaren 7an egindako Udalbatzan erabaki bezela, 2009ko aurrekontua onartu baino lehen Diputazioan aurrekontuen inguruko bilera egitekotan geratu zirela eta pasa den maiatzaren 26an Haziendan bilera izan zutela Bertan, guk aurreikusitako aurrekontu proposamena erakutsi genien eta sarrera arruntak gastu arruntak baino haundiagoak direla eta aurrekontua kuadratzeko eskatu beharko genukeen mailegua ez zigutela emango esan ziguten eta irtenbidea gastu arruntak jeixtea edo sarrerak igotzea zela.

Guzti honengatik eta Diputazioak esandakoarekin bat, Alkateak gastuak jeixteko bere proposamena luzatzen du:

- 1.- 2.kapituloko Udaletxeko telefonoko partida 5.000 €tik 4.000 €-ra jeixtea.
- 2.- 2.kapituloko herriko jaiak partida, 21.000 €-tik 14.000 €-ra jeixtea.
- 3.- 2.kapituloko zaharren eguna eta bidaiak, 5.000 €-tik 3.000€-ra jeixtea.
- 4.- 2.kapituloko Udal Arkitektoen partida, 15.000 €-tik 8.000 €-ra jeixtea.
- 5.- 2.kapituloko desbrozadora eta elur kentze lanak, 15.000 €-tik 12.000 €-ra jeixtea.
- 6.- 2.kapituloko gazteleku eta liburutegiko funtzionamenduaren partida, 52.000 €-tik 46.000 €-ra jeixtea.
- 7.- Edifizio publikoetako garbitzailearen gaia ere gastuak jeixteko aztertu beharrean gaude, hau da, oposaketa atera edo zerbitzua kanpoko enpresa bati eman.

Ondoren, Koldo Arzallus zinegotziak ea 1.kapituloko gastuak jeixteko modurik ba ote dagoen galdetzen du, hau da, dirusarrerak jeixten ari dira eta gastuak aldiz ez. Herriko jaien partida, 21.000 €-tik 14.000 €-tara jeixtea proposatzen duzue eta diru honekin festak ezin dira antolatu. Ni haseratik hasiko naiz, zerbait moldatu bait liteke. Zenbait partida jeitxi daitezke:

- 1.- 1.kapituloko Seguritate Sozialeko gastua jeitxi daiteke.

2.- 1.kapituloko korporatiboen asignazioa 0-n uztea proposatzen dut.

3.- Idazkaria, Administraria eta Aguazila egotea beharrezkoa da. Aguazilaren inguruan, beste lan batzuk asignatu beharko litzaiozkioke, adibidez garbitzaileak egiten dituen lan batzuk. Ondorioz, edifizio publikoetako garbitzaileak lan gutxiago izango luke eta guzti honek gizarte segurantzako kuota jeixtea ekarriko luke. 1º kapitulotik hasi behar gara, beharrezko ez diren gastuak jeixiaz.

4.- Kulturako gastuak jeixtea, beste gastu batzuk jeitxi gabe ez dago ondo.

Iñaki Labaka zinegotziak edifizio publikoetako garbitzailearen gaia aztertzeko garaia dela dio, hau da, plaza atera edo kanponko enpresa bati eman. Honen inguruan ikerketa bat egin beharko litzateke.

Alkateak Koldo Arzallusi erantzuten dio, ea prest dauden langileen soldatak jeixteko eta ez kultur iharduerako gastuak. Alkateak bere soldata %8an jeixtea proposatzen duela aipatzen du.

Koldo Arzallusek dio berak kultur iharduera barruko iharduerak ez lituzkeela jeitxiko, hau da, jubilatuen...Berak aipatzen du, Udaletxea asko ez direla egongo honelako sarrerekin Alkatea liberatuta dagoena. Agian Alkateari lan orduak jeitxi beharko litzaiozkioke.

Iñaki Labakak dio bera ez dagoela ados ordezkarien orduak jeixtearekin.

Bittor Astigarragak dio, Alkatea geroz eta ordu gehiago Udaletxean egon askoz ere hobetoago izango dela herriarentzat.

Bakoitzak bere proposamenak aurkeztu ondoren, eta oraindik gehiago landu beharreko gaia denez, Alkateak puntu hau mahai gainean uztea proposatzen du. Aho batez onartzen dute.

#### **BIGARREN PUNTUA:**

##### **2009 EKITALDIKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN HASIERAKO ONARPENA.**

Aurrekontua onartu ez denez, hau ere aurreko puntuarekin batera mahai gainean uztea proposatzen du. Aho batez onartu dute.

#### **HIRUGARREN PUNTUA:**

##### **2009KO SAN ANTONIO JAIETAKO EGITARAUA ETA AURREKONTUA.**

Koldo Arzallusek dio San Antonio jaiak antolatu direla eta ekainaren 11, 12 eta 13an izango direla eta egun bakoitzeko egitarauaren berri ematen du. Ondoren ekintzak sortzen dituen gastuen berri ematen du.

1.- Hamaiketako-	325 €
2.- Ume jolasak-	120 €
3.- Play Back-a -	150 €
4.- Borondegikoa-	500 €
5.- Txiki poteoa-	500 €
6.- Gorriti-	400 €
7.- Kupela taldea-	1.150 €
8.- Trikitixa-	400 €

9.- Herri kirolak-	1.900 €
10.- Kamisetak -	990 €
11.- Lidia-	700 €
 Guztira-	 7.135€

Beraz, Alkateak ondoko proposamena onartzea proposatzen du:

Lehena.- 2009 ekitaldiko San Antonio jaietako egitaraua eta aurrekontua onartzea.

Bigarrena.- 2009 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.226.452.00.05 kontu sailari 7.135,00 € egozte.

Hirugarrena.- Jaietako egitarauari zabalpena ematea esku programen bitartez, Hitza aldizkarian argitaratuz eta herri iratiaren bitartez.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Bittor Astigarraga Zugasti, Luis Berrondo Lanceta, Luis Arzallus Amenabar, eta Jose Luis Albisua Lasa, kontrako botorik ez dago eta abstentziorik ez dago. Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

**LAUGARREN PUNTUA:  
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ordainagiririk ez dago.

**BOSTGARREN PUNTUA:  
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

- 1.- Komunitatearen aldeko lanak egiteko eginiko eskaera onartzea.
- 2.- Galarraga Barrena baserriko teilatua berritzeko baimena ematea.
- 3.- Galarraga Goena baserrian oilotegi iharduera irekitzeko baimena ematea.
- 4.- Idazkari-Kontuhartzaile berriaren izendapena.
- 5.- “ Tiro al pichón” ekitaldia baimentzea.
- 6.- 2.008ko likidazioaren onarpena.

**SEIGARREN PUNTUA:  
GALDERA ETA ERREGUAK.**

Koldo Arzallusek aurreko Pleno batean harrobiaren aurkako mozioaren inguruan hitzegindako gaiari ekin dio. Berak dio, mozio bateko puntuak beste mozioarekin ez daukala zerikusirik Pintadak egin baziren, hau justifikatzeko bidea bazegoelako zen. Harrobiko proiektua aurkeztu zen arauak aldatu baino lehen. Honen ondorioz, pintadak egin ziren.

Iñaki Labakak dio bera honekin ez dagoela ados eta ez dagoela aurkeztutako mozioa onartzeko beharrik.

Bittor Astigarragak dio, onartu gabeko gauzeekin pintadak egitea ondo ez dagoela.

Koldo Arzallusek dio, Udalak proiektuari hasera eman egin ziola eta ez arau aldaketari, nahiz eta gero atzera bota.

Iñaki Labakak dio, guzti honetan fanatismo puntua dagoela.

Koldo Arzallusek dio, behar ez den puntutik guzti honi hasera eman bazaio, ondo ez dagoela.

Luis Berrondok dio egoera hori bazen, ea zergatik bilera bat eskatu zen. Galdetzen du ea mozioa aparte banatuta ados egongo diren.

Koldo Arzallusek justifikatu ezkerro baietz erantzuten dio.

Guzti honen inguruan adostasunik ez dagoenez, mozioa bertan behera geratzen da.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hamar terdiak direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.

Alkateak